



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## TOKIKO AZOKA ETA MERKATUETAKO SALTOKIEN ESLEIPENARI BURUZKO II. TXOSTENA

### LEA/AVC 240-SUST-2018

#### Aurkibidea:

I. TXOSTENAREN XEDEA.....	2
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN JARDUKETAK TOKIKO AZOKETAKO SALTOKIEN ESLEIPENARI BURUZKO LEHEN TXOSTENA EMAN ZUENETIK .....	3
III. ARAUDI APLIKAGARRIA.....	4
1. Tokiko jaiekin bat egiten diren azokak nola sartu araudian.....	4
2. Araudiaren arlo nagusiak .....	5
A. Aurretiko baimena.....	5
B. Esleipen irizpideak .....	6
C. Interesdunak informatzea .....	7
IV.- BILBOKO UDALAREN ARAUKETA ETA JARDUKETA .....	7
1. Bilboko Udalaren Espazio Publikoaren Ordenantza .....	7
2. Bilboko Udalaren eta erakunde kolaboratzaileen jarduketa .....	9
A. Hitzarmen bidez antolatutako noizbehinkako azokak. San Tomas Azoka.	10
B. Bilboko barruti edo auzoetako jaiak direla-eta antolatutako azokak.....	11
3. Udalaren eta erakunde kolaboratzaileen jarduketaren balorazioa .....	12
A. Hitzarmen bidez antolatutako noizbehinkako azokak. San Tomas Azoka.	12
B. Bilboko barruti edo auzoetako jaiak direla-eta antolatutako azokak.....	12
V. ARABAKO EKOIZLE ETA ARTISAUEN AZOKA ANDRA MARIA ZURIAREN JAIETAN.....	14
VI.- SALMENTA IBILTARIA ARAUTZEKO EUDELEN ORDENANTZA EREDUA	14
VII.- ONDORIOAK .....	16

#### Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva, batzordekidea

Enara Venturini Álvarez, batzordekidea eta idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak bilera egin du 2019ko uztailaren 24an, eta txosten hau eman du tokiko azoka eta merkatuetako saltokien esleipenari buruz.



## I. TXOSTENAREN XEDEA

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak txosten bat eman zuen 2018 maiatzaren 22an Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan noizean behin edo aldizka egiten diren merkatuetako saltokien esleipenarekin lotuta<sup>1</sup>.

2. Lehiaren Euskal Agintaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako tokiko merkatuetan parte hartzerik ez duten eragile ekonomikoen kexa eta salaketak jasotzen jarraitu du. Horregatik, beste txosten bat ematea erabaki du. Bertan, alde batetik lehendabiziko txostenean jorratutako arloetan sakontzen da, eta, bestetik, Bilbon antolatutako azoka eta merkatuen kasua zehatzago aztertzen da.

3. Lehendabiziko txostena egin zenetik honako hau egin denera igarotako denboran, Lehiaren Euskal Agintaritzak zenbait dibulgazio jarduketa egin ditu tokiko azoka eta merkatuen esleipenari buruz emandako gomendioen gainean, bai zuzenean udalerriekin, bai EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen bitartez.

4. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak argitaratutako 2019ko Euskadiko nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza azoken katalogoan<sup>2</sup>, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan egiten diren 344 azoka jasotzen dira<sup>3</sup>. Horrek argi uzten du azokek bai ekonomikoki bai landa eremua eta kostaldea sustatzeko duten garrantzia.

5. Txosten hau eman da Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak autonomia-erkidegoen eskumeneko defentsa-organoei txostenak igortzeko ematen dien eskumena baliatuz; izan ere, aipatutako organo horien artean dago Lehiaren Euskal Agintaritza.

6. Era berean, txosten hau Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legeak, otsailaren 2koak, 3.3.e) artikuluan jasotzen duen eskumenaren barruan eman da, hau da, Lehiaren Euskal Agintaritzari herri-administrazioei merkatuetan lehiari eusteko edo berreskuratzeko gomendioak zuzentzeko emandako eskumenaren barruan.

---

<sup>1</sup> [https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu\\_informes/adjuntos/240\\_IN\\_FORME\\_VENTA\\_AMBULANTE\\_web\\_eu.pdf](https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/adjuntos/240_IN_FORME_VENTA_AMBULANTE_web_eu.pdf)

<sup>2</sup> <http://euskadiferiak.com/index.php/eu>

<sup>3</sup> Errealitatean azoka kopurua katalogoan jasotakoa baino are handiagoa da.



7. Txosten honetan jasotako gomendioen bitartez, noizean behingo kalez kaleko salmentako merkatuetan parte hartu nahi duten operadore ekonomikoei baimenak eman ahalko zaizkie, lehia mugatu ez dadin.

## II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN JARDUKETAK TOKIKO AZOKETAKO SALTOKIEN ESLEIPENARI BURUZKO LEHEN TXOSTENA EMAN ZUENETIK

8. 2018ko maiatzaren 22ko lehen txostena eman zuenetik, Lehiaren Euskal Agintaritzak gomendagarritzat jo du Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan noizean behin edo aldizka egiten diren merkatuetako saltokien esleipenarekin lotutako jarraipen eta sustapen lanak egiten jarraitzea.

9. Helburu horrekin, harremanak izan ditu zenbait udaletako ordezkariekin, EUDELekin, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin, betiere norgehiagoka erregimena eta gardentasun, inpartzialtasun, ez diskriminazio eta publizitate printzipioak errespetatuko dituzten kalez kaleko salmentako postuak hautatzeko prozedurak hitzartzeko asmoz.

10. 2018ko abenduaren 18an, EUDELek Euskal Autonomia Erkidegoko udalei Lehiaren Euskal Agintaritzak tokiko azoka eta merkatuetako saltokien esleipenari buruz egindako gomendioak bidali zizkien.

11. 2019ko uztailaren 17an, Bizkaiko Foru Aldundiak, EUDELek eta Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioak *Bizkaian nekazaritza azokak antolatzeako lankidetzaren hitzarmena* sinatu zuten, aipatu hiru erakundeek 2015eko martxoaren 16an egindakoa. Hitzarmenean xedapen bat gehitu zuten berau 65/2015 Foru Dekretura egokitzeko, zehazki,<sup>4</sup> Bizkaiko Foru Aldundiak araututako erroldan sartuta ez dauden ekoizle eta/edo egileek Bizkaiko tokiko azoka eta merkatu tradizionaletan parte hartu ahal dezaten.

**Lehenengoa.**- Sinatzaileek 2015eko martxoaren 16an egindako *Bizkaian nekazaritza azokak antolatzeako lankidetzaren hitzarmena* aldatzea, zehazki, maiatzaren 12ko Bizkaiko 65/2015 Foru Dekretuak ezarritakora egokitzeko. Horretarako, LEHENENGOA-BIS xedapena gehitu zuten, honako eduki hau duena:

«LEHENENGOA-BIS.- Lehenengo xedapenean ezarritakoari kalterik egin gabe, otsailaren 10eko 15/2015 Foru Dekretuaren xedean sartuta ez dauden ekoizle eta egileek parte hartu ahal izango dute Bizkaiko tokiko azoka eta merkatuetan, betiere argi eta garbi identifikatu eta bermatzen badute euren produktuen jatorria eta Euskal Autonomia Erkidegoko araudian

<sup>4</sup> Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 12ko 65/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko lurralde historikoan egiten diren merkatu eta azoka tradizionaletan nekazaritza- eta elikadura-produktuak saltzen-egiten dituzten pertsonen errolda arautzen duen otsailaren 10eko 15/2015 Foru Dekretua aldatzekoa.



aurreikusitako gainerako baldintzak betetzen badituzte, zehazki, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 65.2 artikuluan antolatzaileen eskumen eta funtzioekin lotuta ezarritakoaren arabera».

### III. ARAUDI APLIKAGARRIA

#### 12. Araudi aplikagarria, dagoeneko Lehiaren Euskal Agintaritzaren 2018ko maiatzeko 22ko lehen txostenean jasotzen dena, honakoa da:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua.

Merkataritza jarduerari buruzko 7/1994 Legea, maiatzaren 27koa. Lege horren 15. artikuluan salmenta ibiltaria definitzen da. 7/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, zerbitzuen zuzentaraua moldatzeko Merkataritza-jarduerari buruzko Legearen bigarren aldaketarena (EHAA, 128. zk., 2008ko uztailaren 7koa).

7/1996 Legea, urtarrilaren 15ekoa, Txikizkako Merkataritza Antolatzeari buruzkoa, eta lege hori aldatzen duen martxoaren 1eko 1/2010 Legea. Aipatutako legearen 6. artikulua arabera, baimena jasotzeko, ezingo dira inola ere ezarri mota edo jatorri zehatz bateko produktuak edo zerbitzuak saltzera behartzen duten baldintza ekonomikoak.

33/2003 Legea, Herri Administrazioaren Ondareari buruzkoa. 86. artikuluan eta hurrengoetan.

17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.

17/2009 Legea, azaroaren 23koa, Zerbitzu-jardueren sarbide libreari eta haien erabilerari buruzkoa. 6. artikulua baimena emateko prozedurari buruz hitz egiten du.

1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duena. 77. artikulua Ondasun publikoen erabilera komun bereziko lizentzia beharrezkoa da.

199/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 26koa, salmenta ibiltaria edo ez sedentarioa arautzen duena.

20/2013 Legea, abenduaren 9koa, merkatu-batasuna bermatzeari buruzkoa. BOE, 295. zk., 2013ko abenduaren 10ekoa.

Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 10eko 15/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko lurralde historikoan egiten diren merkatu eta azoka tradizionaletan nekazaritza- eta elikadura-produktuen saltzaileen edota ekoizleen errola arautzen duena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 12ko 65/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko lurralde historikoan egiten diren merkatu eta azoka tradizionaletan nekazaritza- eta elikadura-produktuak saltzen-egiten dituzten pertsonen zentsua arautzen duen otsailaren 10eko 15/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.

#### 1. Tokiko jaiekin bat egiten diren azokak nola sartu araudian

#### 13. Txikizkako Merkataritza Antolatzeko Legearen arabera, salmenta ibiltaria merkataritzako establezimendu iraunkor batetik kanpo merkatariek egindakoa da. Auzia garatzen duen 199/2010 Errege Dekretuak, lehen kontzeptu horri honako



ñabardura gehitzen dio: «Maiztasuna eta salmenta egiten den lekua edozein izanda ere». Hori horrela, salmenta modalitate ezberdinetan egin daiteke: a) azoka txikiak, b) noizean behin edo aldizka egiten diren merkatuak, c) bide publikoan egiten den salmenta edo d) kamio-dendatan egiten den salmenta ibiltaria.

Deskribatutako mota horietatik guztietatik jaiak ospatzeko ezartzen diren tokiko azoketako salmentari hobeto egokitzen zaiona b) letrakoa da, izan ere, urtero jartzen diren noizean behingo merkatuak dira.

## 2. Araudiaren arlo nagusiak

14. Lehiaren Euskal Agintaritzaren 2018ko maiatzaren 22ko txostenak aztertzen ari garen jarduketa erregulatzeko araudiaren azterketa zehatza egin bazuen ere, garrantzitsua da arlo nagusiak laburbiltzea, zehazki, udalaren aurretiko baimenarekin, esleipen irizpideekin eta interesdunak informatzearekin lotutakoak.

### A. Aurretiko baimena

15. Honako arlo hauek izan behar dira kontuan **udalaren aurretiko baimenarekin** lotuta:

- Tokiko azoka eta merkatuetan parte hartzeko beharrezkoa da udal baimen bat izatea, lurzoru publikoa erabili beharra baitago. Gainera, interes orokorreko garrantzi handiko bestelako auziak ere kontuan izan behar dira, adibidez ordena publikoa, segurtasuna eta osasun publikoa<sup>5</sup>.
- Lizenziak ematea alkatearen eskumena da, salbu eta arloko legeek berariaz osoko bilkurari edo tokiko gobernu-batzarrari eman ez badiote<sup>6</sup>.
- Baimenak zuzenean emango zaizkie eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei. Baimen kopurua mugatua baldin bada lizitazio bat egingo da, baimendutako guztiek baldintza berak betetzen dituztelako horrela egitea ezinezkoa denean salbu. Kasu horretan, zozketa bidez esleituiko dira baimenak<sup>7</sup>.

<sup>5</sup> 199/2010 Errege Dekretua, otsailaren 26koa, salmenta ibiltaria edo ez sedentarioa arautzen duena.

<sup>6</sup> Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikulua.

<sup>7</sup> 199/2010 Dekretua, otsailaren 26koa, salmenta ibiltaria edo ez sedentarioa arautzen duena.

Azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa.

Toki-erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.



## B. Esleipen irizpideak

**16.** Salmenta postuak **esleitzeko irizpideei** dagokionez, <sup>8</sup> konkurrentzia-printzipioak errespetatu behar dira, kontratazio publikoa eraentzen duten berdinak direnak:

- Deialdiaren oinarriek irizpide argi, erraz, objektibo eta auresangarriak ezarri behar dituzte, eta bakoitzari dagokion puntuazioa zehaztu behar dute.
- Salmenta postuen aukeraketak publizitate, gardentasun eta norgehiagoka printzipioak errespetatu behar dituzte, eta ezingo dira ezarri baldintza ez beharrezkoak, gehiegizkoak eta diskriminatzaileak.
- Irizpide sozialak zein ingurumenarekin lotutako irizpideak sartu ahal izango dira, betiere, dagokion azokaren helburuarekin lotuta baldin badaude.
- Hautaketa-prozesuak ezin du nazionalitate-, egoitza- edo bizileku-arrazoiengatik diskriminatu.

**17.** Salmenta ibiltariko merkatuetako postuen esleipenak zorrozki lizitazio publikoak ez badira ere, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea har daiteke instrumentu osagarri orientagarri gisa, norgehiagoka erregimena errespetatu eta gardentasun, inpartzialtasun, ez diskriminazio eta publizitate printzipioak bermatuko dituzten irizpideak definitzeko.

Hori horrela, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak berak zehazten du 28.2 artikuluan gogoeta sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak eskaintzen balorazioaren parte izan daitezkeela. Honakoa adierazten da zehazki:

2. Sektore publikoko erakundeek efizientzia eta erabakitako baldintzak betetzen direla zainduko dute kontratazio publikoko prozesuak gauzatzeko orduan, izapideak ahalik eta lasterren egiten lagunduko dute, kontratazio publikoko prozeduretan **alderdi positibo gisa hartuko dituzte gogoeta sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak**, eta enpresa txiki eta ertainek parte hartzea eta informazioa kosturik gabe eskuratzea sustatuko dute, lege honetan aurreikusitako eran.

**18.** Izaera sozialeko irizpideei dagokienez, askotarikoak izan daitezke, adibidez: gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak laneratzen laguntzea; enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea indartzea; lana eta familia-bizitza uztartzen laguntzea; edo gizonen eta emakumeen berdintasun eraginkorra sendotzea.

Ingurumen-arloko irizpideak, berriz, honakoak izan daitezke besteak beste: emisio kutsatzaileak murriztea; energia eraginkortasuna eta energia iturri berriztagarriak erabiltzea sustatzea; lehengaiak, erregaiak eta ura bezalako natura-baliabideen

---

<sup>8</sup> Salmenta ibiltaria edo ez sedentarioa arautzen duen urtarrilaren 26ko 199/2010 Dekretuaren 4. artikulua; Administrazio publikoen ondareari buruzko 33/2003 Legearen 86. artikulua eta ondorengoak; Zerbitzu-jardueratan aske sartzeari eta aritzeari buruzko 17/2009 Legearen II. kapitulua.



kontsumoa minimizatzea; hondakin arriskutsuak zein ez arriskutsuak ahalik eta gutxien sortzea eta berrerabili edo birziklatzea; birziklatutako materialak azken produktuan sartzea; eta zerbitzuko eta produktuko kalitate ziurtagiriak eta ziurtagiri ekologikoak izatea.

Hori bai, esleipen irizpide horiek guztiek honako baldintza hauek bete behar dituzte<sup>9</sup>:

- **Kontratuaren xedearekin lotuta egotea.**
- Espezifikoa eta objektiboki kuantifikatzeko modukoak izatea.
- Aldiz aurretik ezagutzera emandakoak izatea.
- Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren oinarriko printzipioak betetzea,  
Bereziki diskriminaziorik ez egitearena.

### C. Interesdunak informatzea

19. Amaitzeko, **interesdunak informatzearekin lotuta**, kontuan izan behar da beharrezkoa dela udal espazio publikoetan egiten diren azoka eta merkatuetan parte hartzeko baldintzekin lotutako informazio guztiaren zabalkundea erraztu eta sustatzea. Era berean, eskatzaile guztiek jaso beharko lukete azoketan parte hartzeko egindako eskaeraren erantzun zehatza, horrela dagokionean, kanpoan zergatik geratu diren azalduz.

## IV.- BILBOKO UDALAREN ARAUKETA ETA JARDUKETA

### 1. Bilboko Udalaren Espazio Publikoaren Ordenantza

20. Bilboko Udalaren Espazio Publikoaren Ordenantzak<sup>10</sup> kalez kaleko salmenta VI. tituluan arautzen du. Aipatu titulutik honako arauak nabarmendu daitezke:

I. kapituluan xedapen orokorrak daude jasota:

53. artikulua. **Kalez kaleko salmentaren azalpena** Kalez kaleko salmenta hauxe da: saltoki batetik kanpo, desmuntatu ahal diren postuetan edo instalazioetan edota horrelakorik gabe,

<sup>9</sup> 2/2018 Gomendia, ekainaren 21ekoa, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearena. Ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez Gobernu Kontseiluak «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioetan irizpide sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuk sartzeko» hartutako akordioa argitaratzea erabakitzen den.

*Adquisiciones sociales. Una guía para considerar aspectos sociales en las contrataciones públicas.* Europako Batzordea. Enplegu, Gizarte Arazo eta Aukeren Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia.

<sup>10</sup> Bilboko Udalaren Espazio Publikoaren Ordenantza. Osoko Bilkuraren akordioz behin betiko onetsia 2010eko irailaren 23an. 2010eko irailaren 27ko 186. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua. 2010eko urriaren 16an sartu zen indarrean.



hiriko bide publikoan edo espazio libre eta irekietan ohiko edo noizbehinkako saltzaileek egiten duten merkataritzako jarduera. Kalez kaleko salmenta aurrerago aipatuko ditugun aldian behingo edo noizbehinkako azoketan eta azoka txikietan egingo da, eta denboraldiko postu finkoetan ere bai, betiere, Udalaren nahitaezko baimena lortu ondoren, hala behar denean, baimen hori eduki gabe ezin izango baita inolako salmentarik egin. Guztiz debekatuta dago oinezko salmenta, tapakiarekin egiten den salmenta, eta ibilgailuekin edo kamioi-dendekin egiten dena. Baimena eman ahal izango da prestatutako janaria eta edariak saltzeko, ondorio horretarako atondutako furgonetetan edo ibilgailu berezietan, jaiak direnean, edo jarduera hori arauz baimenduta duten azoka txikien barruan, denboraldi baterako edo urterako.

#### 54. artikulua. **Kalez kaleko salmenta motak eta Udalaren ahalmenak**

1.- Hona hemen kalez kaleko salmentaren motak:

- a) **Aldian behingo azoka txikiak:** tradiziozkoak edo berriak diren saltzeko postuen multzo hauek espazio publikoko leku jakin eta zehatz batzuetan jartzen dira astean behin.
- b) **Noizbehinkako azoka txikiak:** saltzeko postuen multzo hauek aurrez zehaztuta ez dauden espazio publikoetan jartzen dira, azokak, jaiak edo edozein motatako hiri-gertakizunak direnean.
- c) **Denboraldiko postu finkoak:** Bilboko espazio publikoko zenbait lekutan, salgai jakin batzuk merkaturatzeko, denboraldi batez jartzen diren saltzeko postu bereziak dira.
- d) **Furgonetarekin edo ibilgailu bereziekin egindako salmenta:** furgoneta bezalako ibilgailuen edo ibilgailu berezi hauen bidez janaria eta edariak merkaturatzen dira, eta baimendu ahal dira jaiak, eta aldian behingo eta noizbehinkako azoka txikiak direnean, edota erregulartasunez.

(...)

III. kapituluaren **noizbehinkako azokak** arautzen dira, hau da, honako txosten honen eraginpean daudenak:

- 1. atalak **hitzarmen bidez antolatutako noizbehinkako azokak** arautzen ditu.

Atal horren baitan daude **San Tomas azoka** (76. artikulua), liburu-azokak (77. artikulua), eskulangintza-azoka eta merkatu txikiak (78. artikulua) eta azoka txiki eta merkatu bereziak (79. artikulua).

Nabarmendu beharra dago aipatutako azoka guztietan honako hau zehazten dela:

saltzaileak hautatzean, publizitate, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagokaren oinarriak bermatuko dira; eta erakunde antolatzaileak hori guztia behar bezala betetzen dela jakinaraziko du.

- 2. atalak **lehia bidez antolatutako noizbehinkako azokak** arautzen ditu.

Atal horren baitan sartzen dira Eguberrietako azoka txikia (80. artikulua), Aste Nagusiko azoka txikia (81. artikulua) eta erlijio-jaiak direla-eta izaten den kalez kaleko salmenta (82. artikulua).

Lehendabiziko bi merkatu horietan, honako hau zehazten da:





baimenak emateko, jendaurreko lehia-prozedurari jarraituko zaio; eta zozketa, lehiaketa edo enkante bidez ebatziko dira, dagokion deialdi publikoan zehazten denaren arabera.

## 82. artikulua araututako merkatuetan, berriz, honako hau zehazten da:

baimenak emateko, jendaurreko lehia-prozedurari jarraituko zaio; eta zozketa, lehiaketa edo enkante bidez ebatziko dira, dagokion deialdi publikoan zehazten denaren arabera.

- 3. atalak **noizbehinkako beste salmenta batzuk** arautzen ditu. Atal horretan Bilboko barruti edo auzoetako jaiak direla-eta izaten diren azokak jasotzen dira.

83. artikulua. Barruti edo auzoetako jaiak direla-eta izaten den salmenta kasuak.

Hiribilduko auzoetako jaiak direla-eta egongo den kalez kaleko salmenta kasu bakarra hurrengo azoka txikietakoa eta jai-esparruetan baimentzen diren saltokietan egiten dena izango da; horiek guztiak gunen horietan kokatzen diren feriako instalazioak edo jolasak era eta modu berean esleituko dira.

84. artikulua **Barazki-frutako, eskulangintzako eta bestelako noizbehinkako azoka txikiak.**

Auzoetako elkarteek, dendarien elkarteek eta beste pertsona eta erakunde batzuek noizbehinkako azoka txikien antolakuntza sustatu ahal izango dute, hiribilduko auzo eta barruti bakoitzean egiten diren tradiziozko gertakizunak daudenean. Azoka txiki horien iraupenak ez du hamar egunetik gora joko.

Erakunde antolatzailea arduratuko da salgai dauden produktu zehatzen arabera ezarriko den sektoreko araudia betearazteaz, dagokion udal-eskubideen ordainketaz, kasu bakoitzean eskatzen diren bermeak jartzeaz, erantzukizun zibileko polizak sinatzeaz, eta parte hartuko dutenak banan-banan identifikatzeaz.

## 2. Bilboko Udalaren eta erakunde kolaboratzaileen jarduketa

**21.** Bilboko udalerrian lurzoru publikoan egiten diren nekazaritzako eta tradiziozko zortzi azokatan egiten da salmenta ibiltaria noizean behin edo aldizkako modalitatean, 199/2010 Errege Dekretuaren lehen artikuluan egiten den definizioaren arabera. Azoka horiek guztiek urteroko maiztasuna dute.

**22.** Bilboko Udalak Lehiaren Euskal Agintaritzak egindako eskaerari erantzunez azaldu duenez, Udala bera ez da Bilbon egiten den nekazaritza azoka bat beraren ere sustatzailea. Azokok irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeek antolatzen dituzte, eta, Udalak, dagokion baimen administratiboa ematen die azoka egin ahal izateko eskatzen duten espazio publikoa okupatzeko.

**23.** Udalak emandako baimenean, okupazio horretarako bete beharreko baldintzak zehazten dira. Hori horrela, baimena ematearekin bat, espazio publikoa okupatzeko baldintza orokor eta zehatzak ezartzen zaizkio sustatzaileari antolatutako ekitaldiaren arabera: instalazioen segurtasuna eta kontrola; elikagai eta edarien salmenta badago, kontrol sanitarioa; ordutegia eta zarata kontrolatzeko baldintzak...



Ekitaldia nekazaritzako azoka bat denean, sustatzaileari parte hartu behar duten erakusketarien zerrenda aurkezteko ere eskatzen zaio, betiere, baina, hautaketa egiteko inolako jarraibiderik eman gabe.

**24.** Hurrengo taulan 2018an Bilbon antolatutako azoken zerrenda jasotzen da, baita berauek antolatu dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeak ere.

BILBOKO TRADIZIOZKO ETA NEKAZARITZAKO AZOKAK		
2018ko data	Azoka	Antolatzailea
Apirilak 8	Karmelo Plazako Nekazaritza Azoka, Santutxu	Santutxuko Gure Auzoa
Apirilak 21	Alde Zaharreko Nekazaritza Azoka	Berritzen Elkarte Soziokulturala
Irailak 29	Zorrotzako Azoka	Aldatz Bide Auzo Elkarte
Urriak 7	San Pedro Plazako Nekazaritza Azoka, Deustu	Deustuko Kultur Elkarte
Azaroak 10	San Martin Nekazaritza Azoka	Zabalkuntza Kultur Taldea
Azaroak 18	Errekaldeko Nekazaritza Azoka	ONKI Xin Kultur Taldea
Azaroak 25	San Andres Nekazaritza Azoka	Akuilua Kultur Elkarte
Abenduak 21	San Tomas Azoka	BBK Banku Fundazioa

**25.** Udalak irabazi-asmorik gabeko elkarte edo erakundeen esku uzten duenez azoken antolakuntza, berauek izan dira Lehiaren Euskal Agintaritzaren eskariari erantzunez 2018ko azoketako parte hartzaileak hautatzeko erabilitako irizpideak azaldu dituztenak. Jarraian bildu dira irizpideok.

#### **A. Hitzarmen bidez antolatutako noizbehinkako azokak. San Tomas Azoka.**

**26.** San Tomas Azoka da Espazio Publikoaren Ordenantzaren III. kapituluko 1. atalean sartutako azoketako bat. Bertan, **hitzarmen bidez** antolatutako noizbehinkako azokak arautzen dira. Azoka Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioak antolatzen du, eta, parte hartzeko ezarritako hautaketa irizpideak baldintza-agirian ezarritakoak dira. Saltoki baino eskatzaile gehiago baldin badaude, honakoak dira irizpideok:

a) Ekoizpenaren jatorria (% 30)

Salgai jarritako produktuaren ekoizpen eta elaborazio lekuaren hurbiltasuna balioetsiko da, Bizkaiko sektore tradizionalari laguntza emanez. Era berean, Arabako eta Gipuzkoako sektore tradizionalak ere balioetsiko dira, puntuazioaren erdia emanez.

b) Jatorri izen edo kalitate ziurtagiri bat izatea (% 15)

Goian aipatutako ekoizpen ziurtagirietako bat aurkezten duten eskaerak balioetsiko dira.

e) Ekoizpen ekologikoko ziurtagiri bat izatea (% 15)

Ekoizpen ekologikoko ziurtagiri bat aurkezten duten eskaerak balioetsiko dira.

d) Ekoizle gaztea izatea edo/eta ustiatagia berria izatea (% 15)

Titularra edo kudeatzailea 41 urte baino gutxiagoko norbait den ustiatagi edo elkartearen eskaerak balioetsiko dira, baita «ustiatagi berriek» aurkeztutakoak edo/eta eskaera egin baino 5 urte lehenagora arte eratutako ustiatagiek aurkeztutakoak ere.



e) Ekoizlea emakumea izatea (% 15)

Titularra emakumea den ustiategiek aurkeztutako eskaerak balioetsiko dira, baita kudeatzailea emakumea den elkarteek aurkeztutakoak ere.

f) Ekoizpen berritzaileak edo desagertzeko arriskuan daudenak (% 10)

Aniztasuna eta elikadura ondarea aberasten duten ekoizpen berriak zein desagertzeko arriskuan daudenak balioetsiko dira.

## **B. Bilboko barruti edo auzoetako jaiak direla-eta antolatutako azokak.**

**27.** Gainerako azokak Espazio Publikoaren Ordenantzaren III. kapituluko 3. atalean jasotakoak dira. Bertan, Bilboko **barruti edo auzoetako jaiak direla-eta** antolatutako azokak arautzen dira. Guztira zazpi azoka dira eta bi taldetan banatzen dira:

a) Berritzen Elkarte Soziokulturalak (Santutxuko Gure Auzoa, Goi Zubi, Aldatz Bide, Deustuko Kultur Taldea, Zabalkuntza eta Akuilua elkarteekin batera) «Baserritik Bilbora» nekazaritza azokak antolatu zituen 2018an, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioarekin sinatutako elkarlan hitzarmen baten bidez. Honako azoka hauek dira zehazki:

Karmelo Plazako Nekazaritza Azoka, Santutxu

Alde Zaharreko Nekazaritza Azoka

Zorrotzako Azoka

San Pedro Plazako Nekazaritza Azoka, Deustu

San Martin Nekazaritza Azoka

San Andres Nekazaritza Azoka

Azoka horietan parte hartzeko **hautaketa-irizpideekin** lotuta, aipatu antolatzaileek honako arlo hauek izan zituzten kontuan:

Saltzaileei dagokienez, euren hautaketan kalitatea, ibilbidea, inguruaren ezagutza eta jatorria izan ziren aintzat. Gehienak bizkaitarrak ziren, eta, noski, Bizkaian egiten diren nekazaritza azoketan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten Bizkaiko Foru Aldundiaren ekoizleen zerrendan izena emanda zeuden guztiak.

b) Errekaldeko Nekazaritza Azoka Onki Xin Kultur Elkarteak antolatzen du, eta, 2018an erabili zituen **hautaketa-irizpideak** honako hauek izan ziren:

Azokan parte hartzeko baldintza bakarra ekoizlea izatea eta birsalmatarik ez egitea da.

Azken ediziora arte ez dugu hautaketa irizpiderik izan, azoka ekoizlea dela egiaztatzen duen orori irekita baitago. Elkarte bezala ezartzen dugun irizpide bakarra produktu berdinen postu gehiegi ez izatea da, eta, hain zuzen ere, horixe da kasuren batean ezezkoa emateko izan dugun arrazoia.

Gure azokan parte hartzen duten baserritarrek urte asko daramatzate gurekin, eta, bajak izan direnean, beste ekoizle batzuei eman zaie parte hartzeko aukera.



### 3. Udalaren eta erakunde kolaboratzaileen jarduketaren balorazioa

#### A. Hitzarmen bidez antolatutako noizbehinkako azokak. San Tomas Azoka.

**28. San Tomas Azokari** dagokionez, beharrezkoa da nabarmentzea lehendabiziko irizpidea, ekoizpenaren jatorriari dagokiona, diskriminatzailea eta Zerbitzuen Zuzentzarauaren zein zuzentzarauaren transposiziorako arau guztien aurkako dela. Izan ere, horietan adierazten denez, hautaketa prozedura batek ezin ditu inoiz nazionalitate-, egoitza- edo bizileku-arrazoiengatik diskriminatzaileak diren irizpideak izan. Arlo hori Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurreko txostenean ere aztertu zen, eta Eusko Jaurlaritzak argitaratutako *Euskadin tokiko azokak eta feriak antolatzeko gida* lanean ere jasota dago.

**29.** Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioak ekoizleek parte hartzeko baldintza-agirian ezarritako irizpideei dagokienez, nabarmendu beharra dago oro har Espazio Publikoaren Ordenantzaren 76. artikuluan ezarritakoa betetzen dutela. Bertan jasotzen denez, saltzaileak hautatzean, publizitate, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagokaren oinarriak bermatuko dira; eta erakunde antolatzaileak hori guztia behar bezala betetzen dela jakinaraziko du. Irizpide argiak direla eta haztatuta daudela ere nabarmendu behar da.

**30.** Hala ere, sartutako irizpide sozialei dagokienez, egokia da aipatzea, honako txosten honekin duen loturagatik, Lehiaren Euskal Agentziak berriki kaleratutako *Kontratazio publikoan genero-klausulak aplikatzeari eta horrek lehian dituen ondorioei buruzko txostena*<sup>11</sup> lanean adierazitako jarrera, gainerako irizpide sozialetara ere zabaldu beharko litzatekeena eta honakoa dioena:

Genero-ikuspegia duten esleipen-irizpideak ezartzeak ez luke, berez, lehia mugatu behar, ez baitu lizitazioan sartzeko hesirik sortzen. Halere, esleipen-irizpide horien puntuazio osoari emandako haztapena oso handia balitz, izan liteke hesi; beraz, alde aurretik behar bezala aztertu beharko da alderdi hori, kontratatu beharreko prestazioarekiko proportzionalak izan daitezten hautatutako irizpideak.

#### B. Bilboko barruti edo auzoetako jaiak direla-eta antolatutako azokak.

**31. Bilboko barruti edo auzoetako jaiak direla-eta antolatutako azokei** dagokionez, nabarmendu beharra dago azokok arautzen dituen 84. artikuluan ezarritakoa, non zehazten den bakarra den azoka antolatzen duen erakundea dela bertan parte hartuko dutenen identifikazio indibidualaren arduraduna. Bada, hori ez

<sup>11</sup> Kontratazio publikoan genero-klausulak aplikatzeari eta horrek lehian dituen ondorioei buruzko txostena, 2019ko maiatzaren 15ekoa. LEA/AVC 301-SUST-2018 espedientea



da nahikoa lehiaren defentsaren ikuspuntutik, ez baitu bermatzen postuak norgehiagoka erregimenean esleitu direnik, ezta gardentasun, inpartzialtasun, ez diskriminazio eta publizitate printzipioak beteko direnik ere.

**32.** Aipatu bezala, salmenta ibiltaria edo ez sedentarioa arautzen duen otsailaren 26ko 199/2010 Errege Dekretuak zehazten duenez, lizentziak ematea alkatearen edo eskumena duen udal organoaren eskumena da. Hori, noski, ez da oztopo Udalak udalerriko elkarteekin nolabaiteko elkarlan mailaren bat zehaztu dezan azokak kudeatzeko, betiere jarraipen eta kontrol lanak zuzenean eginez, bai parte hartzeko baldintzei bai saltzaileak hautatzeko irizpideei dagokienez.

Errege Dekretuak jasotzen duenez, jabari publikoko zoru erabilgarria eskasa da, eta horregatik mugatu behar da baimen kopurua. Hori dela eta, esleipen prozedura publikoa eta gardena izan behar da, eta Udalak berak bermatu behar du hori.

**33.** Egiaztatu ahal izan denez, azokotan ez dago argi definitutako balorazio irizpiderik eta ez da irizpideoi emandako puntuazioa zehazten, eta, horrek, azoketan parte hartzeko postu bat eskatzen dutenen babesgabetasuna eragiten du. Salmenta-postuak esleitzeko arrazoiak ere falta dira, prozeduraren arbitrariotasuna dakarrena.

**34.** Aztertutako azoka guztietan antolatzaileek erabilitako irizpideek Bizkaiko ekoizleei lehentasuna ematen dietela kontuan izanik, kasu honetan ere beharrezkoa da beste behin errepikatzea hautaketa prozedurak ezin duela inolaz ere nazionalitate-, egoitza- edo bizileku-arrazoiengatik diskriminatu.

**35.** Azkenik, honako txosten honetan aztertutako auziarekin duen harreman zuzena kontuan izanda, egokia da ere Arartekoak plazaratu berri duen txostenari aipamena egitea, bertan zenbait gomendio egiten baitizkio Udalari Bilboko jaietan txosnak jartzeko baimenak nola eman arautzen duen baldintza-agiriarekin lotuta<sup>12</sup>. Zehazki, honako gomendioa egiten da:

Zehazki, banatu beharreko espazio publikoa erabiltzeko baimenen esleipendunak hautatzeko kontuan izango dituen irizpideak deialdia eraentzen duen baldintza-agirian jasotzeko eskatzen dio, betiere, egingo den balorazioa eta haztapena zehaztuz.

<sup>12</sup> Arartekoaren 2019R-1765-18 Ebazpena, 2019ko ekainaren 26koa, Bilboko Udalari gomendatzen diona Aste Nagusian irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeen txosnak jartzeko baimenak nola eman arautzen duen baldintza-agiria berrikustea.



## V. ARABAKO EKOIZLE ETA ARTISAUEN AZOKA ANDRA MARIA ZURIAREN JAJETAN

**36.** Arabako Ekoizle eta Artisauen Azoka Andra Maria Zuriaren jaietan egiten da Gasteizen, eta Vital Fundazioak antolatzen du. Azokaren izenak berak iradokitzen duen eta Vital Fundazioaren webgunean argitaratutako informazioak egiaztatzen duen bezala<sup>13</sup>, Arabako ekoizle eta artisauei soilik bideratutako azoka tradizionala da. Horrela jasotzen da Vital Fundazioak argitaratutako oinarrietan ere:

### III.- POSTUAK ESLEITZEKO PROZEDURA

#### 1. Arabako ekoizleei, elikagai-industriari eta artisauei bideratutako merkatua eta arabarra izatearen justifikazioa

Kontuan izanik honako merkatu hau nekazaritzako azoka bat dela eta duen berezko izaera eta zentzua, **Arabako ekoizle eta artisauei bideratuta dago eskusiboki.**

Arabarra izatea justifikatzeko, eskatzaileek honako agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- Nekazaritzako ustiategiak: **Nekazaritzako Ustiategien Erregistroko** ziurtagiria. Bertan adierazitako **ustiategiaren identifikazio fiskaleko kodeak edo identifikazio fiskaleko zenbakiak bat egin beharko du azokan parte hartzeko egindako eskaeran adierazitakoarekin.**

- Elikagai-industriak: enpresa eskatzailea azokan merkaturatzea eskatu duen produktuari dagokion nekazaritzako elikagaien osasun erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Honako Ebazpen hau argitaratzen den egunetik atzera eginda, **hamar urte baino gutxiagoko data izan behar du aipatu ziurtagiriak.**

(...)

**37.** Ildo horretan, bai Bilbon bai Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako udalerrietan antolatutako azoken kasuan egin den bezala, berriz ere aipatu behar da hautaketa prozesuek ezin dutela nazionalitate-, egoitza- edo bizileku-arrazoiengatik diskriminatu. Izan ere, Zerbitzuen Zuzentarauak eta Lehiaren Zuzenbideak ez ezik, salmenta ibiltariaren araudiak berak ere debekatzen du irizpide diskriminatzaile hori erabiltzea.

## VI.- SALMENTA IBILTARIA ARAUTZEKO EUDELEN ORDENANTZA EREDUA

**38.** Lehiaren Euskal Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko aurreko txostenean ere, zenbait ohar egiten ziren jada salmenta ibiltaria arautzeko Eudelen ordenantza

<sup>13</sup> <https://www.fundacionvital.eus/feria-de-la-blanca-2019>



ereduan jasotako irizpideen ganean, Euskal Autonomia Erkidegoko merkatu ibiltarietan parte hartzeko interesa dutenentzat argiak, errazak eta auresangarriak ez zirela aipatuz.

**39.** Aipatu salmenta ibiltari ereduak EUDELeko webgunean argitaratuta izateari utzi dio honako txosten hau eman den datan, aldiz, webgunean esteka bat sartu da *Bizkaiko tokian kokiko nekazaritza eta elikagai azokak eta feriak eratzeko eskuliburua*<sup>14</sup> lanera, Bizkaimendi Bizkaiko Landa Garapen Elkartearen Federazioak argitaratutakoa Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioarekin eta EUDELekin elkarlanean.

Argitalpen horrek, honako gomendio hauek jasotzen ditu zehazki:

EKOIZLEEK IZENA EMATEKO GOMENDIOAK:

(...)

Ekoizleak AUKERATZEKO ERISPIDEAK idatziz ezarri behar dira; udalerrriaren arabera erispide horreik ondokoak izan daitezke:

- Ekoizleen jatorria: herriko, eskualdeko, lurralde historikoko, Euskal Herriko ekoizleei lehentasuna emonez.

- Saltzeko baimena daukien ekoizleen tipologia: hainbat produkturen ordezkariak lehenetsi daitezke: herri eta eskualdekotzat hartzen diranak edo kalidade eta jatorri bereizgarriak daukiezanak; era berean, feria monografikoak be egin daitezke, produktu baten edo biren inguruan.

- Saltzeko ipinitako produktuak egiteko modua: artisau lantzat hartzen diran produktuak lehenetsi daitezke produktu komertzialen aldean.

- Antzinasuna feriara bertaratzeko hurrenkeran: aurreko aldietan feriarri bertaratu diran ekoizleei lehentasuna emonez.

(...)

**40.** Egiaztatu daitekeen bezala, beste behin ere ekoizleen jatorriarekin eta azokan parte hartzen daramaten denborarekin (antzinasuna) lotutako irizpideak ezartzen dira, egokia ez dena parte-hartzaileen hautaketa norgehiagoka, gardentasun, inpartzialtasun eta diskriminazio ezeko printzipio orokorrak jarraituz egin dadin, txosten honetako aurreko ataletan luze eta zabal azaldu dugun bezala.

<sup>14</sup> [http://www.eudel.eus/eu/documentos/otros\\_modelos\\_0](http://www.eudel.eus/eu/documentos/otros_modelos_0)



## VII.- ONDORIOAK

- 41.** Noizean behingo merkatuetan jarriko diren saltokiak hautatzeko prozedura udal bakoitzak zehaztu behar du, betiere lehia-araudia eta gardentasunaren, inpartzialtasunaren, diskriminazio ezaren eta publikotasunaren irizpideak errespetatuz.
- 42.** Beharrezkoa da udal espazio publikoetan egiten diren azoka eta merkatuetan parte hartzeko baldintzekin lotutako informazio guztiaren zabalkundea erraztu eta sustatzea. Hori horrela, deialdiaren oinarriak parte-hartzaile guztien aukera berdintasuna bermatzen diseinatu behar dira, irizpide argi, erraz, objektibo eta auresangarriekin eta bakoitzari dagokion puntuazioa zehaztuz. Era berean, eskatzaile guztiek jaso beharko lukete azoketan parte hartzeko egindako eskaeraren erantzun zehatza, horrela dagokionean, kanpoan zergatik geratu diren azalduz.
- 43.** Edozein kasutan, hautaketa-prozesuak ezingo du nazionalitate-, egoitza- edo bizileku-arrazoiengatik diskriminatu.
- 44.** Horregatik, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioari eta Vital Fundazioari dituzten hautaketa irizpideak berrikusi eta diskriminatzaileak ez diren beste batzuk ezartzeko gomendatzen diegu.
- Tokiko jaiak direla-eta egiten diren merkatuak antolatzeko arduradunak udalerriko elkarteak edo beste erakunde batzuk badira, postuen esleipen prozesua Udalak egin edo/eta ikuskatu behar du, bera baita lurzoru publikoan egindako ekitaldi baten antolakuntzaren azken erantzulea.
- 45.** Bilboko Udalari gomendatzen zaio Espazio Publikoaren Ordenantza alda dezala, zehazki *Noizbehinkako azokak* III. kapituluko *Noizbehinkako beste salmenta batzuk* 3. atala. Zehazki, saltzaileak hautatzean publizitate, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagoka printzipioak betetzea bermatzeko egin behar du aldaketa, eta, betiere, Udalak berak hartu behar du horrela egiten denaren ardura.
- 46.** EUDELi gomendatzen zaio salmenta ibiltariaren gaineko ordenantza eredu berri bat onartu eta argitaratzea, eta, bertan, saltzaileak hautatzeko irizpide berriak sartzea, betiere, norgehiagoka, gardentasun, inpartzialtasun, ez diskriminazio eta publizitate printzipio orokorrak errespetatuz. Irizpideok argiak, errazak, objektiboak eta haztatuak izan behar dira, udalek eredu gisa erabil ditzaten baliagarriak behin antolatutako ekitaldiaren berezitasunetara egokituta.